48 22

BILBOKO PORTUA

Bilboko portua Itsasadarrean sortzen da. Haren ibilbidea behin eta berriz zuzendu eta dragatu zen nabigazioa errazteko helburuarekin.

Itsasontzien tamaina, oro har, handitu zenez, portuan murrizpen handiak sortu ziren, Itsasadarraren baldintza geometrikoek, (horiek ontzien luzera mugatzen zuten), gero eta eskasagoa zen zabalerak eta erabat urbanizatuta zegoen inguru batean egoteak eragin da. Horiek guztien ondorioz, trafikoa mugatuko da eta bere instalazioak Abra ibaira, edo Nerbioi ahokadurak sortzen duen badia handira aterako dira.

Kanpo portu bat eraikiko dela adierazten duten lehenengo dikeak XX. mende hasierakoak dira (Santurtziko dikea eta Algortako kontradikea), baina urte asko



Ortoargazkia 1945-46. Amerikar hegaldia, A bilduma. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.

Portua Itsasadarrean murgiltzen da. Hauek bakarrik eraiki dira: Itsasadarraren babesa 5) , Santurtziko dikea (1)eta Algortako kontradikea (2), 1902. urtekoak. Santurtzi aurrean kanpo portuko jarduerari ekin egiten zaio Reina Victoria Eugenia (3) moilan, arrantza portu txikirako lekua utzita (4).



Ortoargazkia 1965. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Bizkaiko Foru Aldundia.

Santurtziko moiletan (1) 1950eko hamarkadan egindako handitze lan gutxi batzuk izan ezik, ez da handitze lan handirik ikusten 1945eko hegaldiari dagokionez.

Portuko jarduera gehienak Itsasadarrean garatzen jarraitzen du.

igaroko dira aipatutako dikeek mugatutako gunean moilak eraikitzen hasi arte.

Lehenengo mila “Reina Victoira Eugenia” izenekoa izan zen, ia osorik Santurtzi barruan. Berez, XX. mende erdialdean, barne portua handitu egin zen Deustuko kanalaren bidez.

1980eko hamarkadan, zegoeneko, kanpo portuko moilak operatibo zeuden eta “Superportua” eraikitzeko lanak prestatzen ari ziren, Punta Lucero (edo Poniente) dikea amaitu ondoren eta Punta Galeako dikea eraikitzeari ekin eginez. Azken horretan sektore txiki bat besterik ez da egingo. Horri guztiari esker, petrolio-ontzi handiagoak sartu ahal izan ziren, Punta Lucero dikeekin lotutako moiletan.

Zenbait urte beranduago, Itsasadarreko moila asko ixtea agintzen zuen dekretu bat kaleratu zen, kanpo dartsenaren zenbait moila dagoeneko eraginkor dagoelako.



Ortoargazkia 1983. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco,Euskadi. Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia.

Punta Lucero dikea (1) eraiki da. Horrek solteko likidoen trafikoa xurgatuko du eta Punta Galeako dikea (2) eraikitzen hasiko da, nahiz eta hura amaitzera ez iritsi. Kanpo portua (4 eta 5), dagoeneko, ia guztiz eraikita dago, Santurtziko dikearen (3) ekialdera erantsita. Solteko likidoen terminala eta etorkizuneko zentral elektrikoa eraikitzeko lanak hasi dira (6). Barne portuak jardunean jarraitzen du



Ortoargazkia 2004. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Dagoeneko solido handien terminala eraiki da (1), eta Santurtziko dikea desagertu da (2)

Santurtziko kontradikearen (2) eta Zierbenako dikearen (3) eraikuntzarekin osatu den moila multzo berrian enbutituta. Horietako batzuk, dagoeneko, zerbitzuan daude. Zierbena (4), Getxo (5) eta Areetako (6) laket-portuak eraiki dira eta baita ziklo konbinatuko zentral elektrikoa ere (7). 2006.urtean barne portuko jarduera murriztu egin zen.




Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 496084 m // Y: 4800769 m.

"Superportuko" dartsena berria (1) dagoeneko oso aurreratuta dago, edukiontzietarako, solteko solidoetarako, RORO eta zama tradizionalerako moilekin. Horrez gain, nabarmentzen da, Getxo kirol portua ixte duen dike batetik aurrera, bi gurutzaontzi porturatzeko mila baten eraikuntza (2), bere itsas estazioarekin eta ondoren, Algortako kontradikeari (3) atxikitako gurutzaontzietarako beste moila bat (3). Arrantza portura ere berrantolatu da, laket-ontzietarako pantalanak sartuz (4).



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. 1. Solteko likidoak (ikuspegi partziala) 2. Solteko solidoak. 8. Kanpo portuko moilak, bereziki zama orokorrerako erabilita. "Superportuko" dartsena berria oso aurreratuta dago, edukiontzietarako (7), solteko solidoetarako (3), RO-RO, hau da gurpilen gaineko kargamendurako (8), edukiontzietarako (7) eta merkantzia orokorrerako (4) moiletarako. Oraindik zenbait guneren (9) dartsena amaitu gabe dago. Bereziki garrantzitsua da dartsena handia partzialki bitan zatituko duen azalera zut baten eraikuntza (10), moiletako atrakalekuen luzera nabarmen handituz.






Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.

Solteko likidoen terminalaren atrakalekuetako bat Punta Lucero dikean Bertan, 276 m luzerako eta 49 m zabalerako petrolio-ontzi bat atrakatuta dago.Portuaren zonalde honen sakonera 32 metrokoa da itsasbehera bizian.






Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.

Edukiontzien terminala Superportuan (A1 moila).





Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.

Kanpo portua. Zama orokorreko moilak.

Argazkiaren beheko moilan atrakatutako kargaontzia, adibidez, ezingo litzateke Pasaiako portuan sartu, 225 metroko luzera eta 31 metroko zabalera izateagatik, Pasaian onartzen diren handienak 185 m luzera eta 30 m zabalerako neurriak baitira.